# DONOSTIARRA





DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN







Donostiar estimatua:

Une aldakor eta exijentea bizi dugu. 2026an hasiko da Donostia aro trinko baten fruituak jasotzen. Deserosotasuna eta ezinegona eragin dituzten zenbait obra eta azpiegitura handi amaitzen ari dira, eta hiria hasi da hobekuntzak nabaritzen.

Testuinguru horretan, **Udala kudeatzeko modu berri bat** lideratu nahi dut: gehiago entzun, hobeto azaldu eta zorroztasunez nahiz koherentziaz jokatu. Nire konpromisoa argia da: **donostiarra erabaki guztien erdigunean jartzea, gizatasuna eta exijentzia** uztartzen dituen politika medio. Hurbiltasuna, errespetua eta elkarrizketa, bai; baina era berean baita erantzukizuna, anbizioa eta emaitzak ere.

Aro bakoitzak bere erronkak ditu, eta gaur etxebizitza eskuragarria lortzea da potoloena. Horrekin batera, gure ekonomia indartzen eta segurtasuna hobetzen jarraitu nahi dugu. Hori guztia 2026an Udalaren historiako aurrekonturik sozialena baliatuta. Eta alkate naizen aldetik, **aliantza berriak** lideratuko ditut Eusko Jaurlaritzarekin eta Foru Aldundiarekin. Hain zuzen ere, Donostiak beti irabaziko du **akordio onuragarri horiekin.**

Aurten, gainera, biharko Donostia elkarrekin irudikatzeko ekimen bat jarriko dugu abian. Izan ere, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren eztabaidari heldu eta datozen hamarkadetan hiriaren norabidea ezartzeko estrategiak definituko ditugu. Prozesu zorrotza, partekatua eta zirraragarria izango da.

Ondorengo orrialdeetan, dagoeneko abian ditugun proiektu asko aurkituko dituzu, politika egiteko gure modura betiere: donostiar erara.

Jomuga argia da: **Donostia barrutik, pertsonetatik, eraldatzea.**

Donostia donostiarrontzat.

Vivimos un momento cambiante y exigente. 2026 será el año en el que Donostia empiece a recoger los frutos de un tiempo intenso. Muchas de las grandes obras e infraestructuras que han generado incomodidades y malestar están llegando a su fin, y la ciudad empieza a disfrutar de las mejoras.

Y en este contexto quiero liderar **una nueva manera de gestionar el Ayuntamiento:** escuchar más, explicar mejor y actuar con rigor y coherencia. Mi compromiso es claro: **poner al donostiarra en el centro de todas las decisiones** con una política que combina **humanidad y exigencia.** Cercanía, respeto y diálogo, sí; pero también responsabilidad, ambición y resultados.

Cada tiempo tiene sus retos. Hoy, el principal, es el acceso a una vivienda asequible, pero también seguir fortaleciendo nuestra economía y mejorar la seguridad. Todo ello contando en el 2026 con el presupuesto más social de la historia del Ayuntamiento. Y como alcalde voy a liderar **nuevas alianzas** con el Gobierno Vasco y la Diputación Foral: **acuerdos útiles** con los que siempre gane Donostia.

Este año, además, pondremos en marcha una iniciativa para imaginar juntos la Donostia de mañana, abordando el debate del Plan General de Ordenación Urbana y definiendo las estrategias que marcarán el rumbo de la ciudad en las próximas décadas. Será un proceso exigente, compartido y apasionante.

En las páginas que siguen encontrarás muchos de los proyectos en los que ya estamos trabajando, con una manera muy nuestra de hacer política: a la donostiarra.

Y el objetivo es claro: **transformar Donostia desde dentro, desde las personas.**

Donostia para las y los donostiarras.

**Jon Insausti Maisterrena**

Donostiako Alkatea
Alcalde de Donostia / San Sebastián

**189.866** biztanle

2026ko aurrekontua

**495M€**

**2.619€**
donostiar bakoitzeko.

**18.000**
familia donostiar gizarte-zerbitzuek artatzen dituzte urtero,
**4 familiatik 1**.

**3.000 adinekok**
jasotzen dute etxez etxeko arreta.

**3 haurreskola berri**
Erriberan, Grosen eta Intxaurrondon.

Donostiarren
**% 53**
euskaldunak dira.

Donostian **20 ekitaldi kultural** egiten dira egunero,
**7.200 urtean.**

**10 kultur etxe.**
**17 udal liburutegi.**

Donostia Kulturak
**126.200 bazkide ditu.**

Urtean
**34.000.000**
**bidaia baino gehiago Dbusen** eta **12.300** abonatu **Dbizin**.

Donostiak **15.384 enpresa** ditu:
enplegua eta aukerak sortzen dituzte.

**Langabezia-tasa**




**17 udal kiroldegi.**

**50.000 donostiar baino gehiago**
Kiroltxartelaren bazkide.

**I+G+b-ra bideratutako BPGren % 3,7**

Euskadi: % 2. Espainia: % 1,7. Europa: % 2,3.

4 unibertsitate eta Lanbide Heziketako 17 zentro, **21.000 ikasle** baino gehiagorekin.

**189.866** habitantes

Presupuesto 2026

# 495M€

**2.619€**
por donostiarra.

**18.000**
familias atendidas cada año por los servicios sociales, **1 de 4** familias donostiarras.

**3.000 personas**
mayores reciben atención domiciliaria.

**3 nuevas haurreskolas**
en Riberas de Loiola, Gros e Intxaurrondo.

**53%**
de donostiarras son euskaldunes.

En Donostia se celebran **20 eventos culturales** cada día,
**7.200 al año.**

**10 casas de cultura.**
**17 bibliotecas municipales.**

**126.200 socios/as**
de Donostia Kultura.

**Más de 34.000.000**
viajes anuales en **Dbus** y **12.300** abonados/as a **Dbizi**.

Donostia cuenta con **15.384 empresas** que generan empleo y oportunidades.



**Tasa de desempleo**




**17 polideportivos municipales.**

Más de **50.000 donostiarras abonados** a la Kiroltxartela.

**3,7% del PIB destinado a I+D+i.**

Euskadi: 2%. España: 1,7%. Europa: 2,3%.

4 universidades y 17 centros de FP en los que se forman más de **21.000 alumnos/as.**







DONOS

Hiria hazten ari da eta aurrera doa etorkizunerantz, eta donostiarrok ere harekin batera goaz aurrera. Bizi-proiektuak garatzeko aukera emango diguten auzo berriak sortuz ari gara hazten. Garraio publiko kalitatezko eta jasangarri bat dugu bidaiatzeko, gero eta donostiar gehiago elkartzen dituena. Eta gure kaleak eta plazak elkargune bihurtzen ditugu, partekatzeko eta gozatzeko.

**Lotzen gaituen Donostia oraina eta etorkizuna da.**



La ciudad crece y evoluciona hacia el futuro y las y los donostiarras lo hacemos con ella. Crecemos con nuevos barrios en los que desarrollar proyectos de vida. Viajamos en un transporte público de calidad y sostenible que cada día une a más donostiarras. Y convertimos nuestras calles y plazas en puntos de encuentro para compartir y disfrutar.

**La Donostia que nos conecta es presente y futuro.**

STIARRA

# Auzo berriak: Infernua, Loiolako kuartelak eta Altza Berriren aldeko apustu irmoa.

Donostiarrontzat ari da eraldatzen Donostia: etxe, ekipamendu eta aukera profesional gehiago. Infernua, Loiolako kuartelak eta Altza Berri (Auditz Akular) hazi egingo dira. Ingurune konektatu eta berritzaileak izango dira horiek, gaur egungo eta etorkizuneko proiektuak errealitate bihurtzeko aukera emango dutenak.



+ 5.000 etxebizitza gehiago hiru auzo berrietan.

Auzo modernoak, komunitate, teknologia eta enpresa-ekipamenduz hornituak.

→ Eremu berde, ireki eta irisgarriak.



# Nuevos barrios: el Infierno, Cuarteles de Loiola y una apuesta firme por Altza Berri.

Donostia se transforma para las y los donostiarras: más hogares, equipamientos y oportunidades profesionales. El Infierno, Cuarteles de Loiola y Altza Berri (Auditz Akular) crecen y se transforman en entornos conectados e innovadores en los que hacer realidad proyectos en presente y futuro.



+ 5.000 viviendas en los tres nuevos barrios.

Barrios modernos con equipamientos comunitarios, tecnológicos y empresariales.

→ Áreas verdes, abiertas y accesibles.



# 2026an, Topoa iritsiko da.

Obrak Eusko Jaurlaritzak egin eta finantzatu ditu, Euskal Trenbide Sarearen (ETS) bidez, eta 2026an amaituko dira. Iraultza ekarriko dute hiriko mugikortasunean. Geraleku gehiago, maiztasun hobeak eta zuzeneko ibilbide berriak, egunero-egunero hirian eta lurraldean mugitzea azkarragoa eta erosoagoa izan dadin.

Hiru geraleku berri: Easo, Erdialdea eta Benta Berri.

Trenak zazpi minutu eta erdiz behin.

Altza – Benta Berri: zuzeneko ibilbide berria.





# Llega el Topo en 2026.

Las obras, ejecutadas y financiadas por el Gobierno Vasco a través de Euskal Trenbide Sarea (ETS), llegan a su fin en 2026 y supondrán una revolución en la movilidad de la ciudad. Más paradas, mejores frecuencias y nuevos trayectos directos para que moverse día a día por la ciudad y el territorio sea más rápido y cómodo.

3 nuevas estaciones: Easo, Centro y Benta Berri.

Trenes cada 7 min 30 s.

Altza – Benta Berri: trayecto directo.



# Atotxako geltoki berria: abiadura handiko trenarentzat prest.

Atotxako geltokia eraberrituta dago jadanik. Eusko Jaurlaritzak kudeaketa-gomendioz eraiki du geltoki berria, Euskal Trenbide Sarearen (ETS) bidez, eta, aldirietako eta distantzia ertaineko zerbitzuak hobetzeaz gain, abiadura handiko trenari ere egin dio tokia; horri esker, konexio azkarragoa izango da Bilborekin, Gasteizekin, estatuarekin eta Europarekin.

6 trenbide eta 5 nasa.

Atarte berria, 7.400 m²-koa.

→ Zerbitzuak: Aldiriak – Distantzia ertaina – Abiadura handia.

**Loiolako Erriberetako aldageltokiarekin burutuko da trenbide-iraultza.**

El futuro intercambiador de Riberas de Loiola culminará la revolución ferroviaria.

# Nueva estación de Atotxa: preparada para el tren de alta velocidad.

La renovación de Atotxa ya es una realidad. Además de mejores servicios de Cercanías y Media Distancia, la nueva estación construida mediante encomienda de gestión por el Gobierno Vasco a través de Euskal Trenbide Sarea (ETS) acogerá la llegada del tren de alta velocidad que conectará más rápido con Bilbao, Vitoria, el Estado y Europa.

6 vías y 5 andenes.

Nuevo vestíbulo de 7.400 m².

→ Servicios: Cercanías – Media distancia – Alta velocidad.



# Tabakalerako parkea: hiriarentzako espazio berria.

Atotxako geltoki berriaren estalkia eremu berdea, irisgarria eta oinezkoena izango da, eta Egia erdialdearekin lotuko du. Modu horretara, mugikortasun aktiboa, atsedenguneak eta artea batuko dira.

→ Aisialdirako 5.700 m² aire zabalean.

Egiaren eta Erdialdearen arteko oinezkoen lotunea.

Esther Ferrerren instalazio artistikoa.

# Parque de Tabakalera: nuevo espacio para la ciudad.

La cubierta de la nueva estación de Atotxa se va a transformar en un nuevo espacio verde, accesible y peatonal que conectará Egia con el Centro, integrando movilidad activa, áreas de descanso y arte.

→ 5.700 m² de esparcimiento al aire libre.

Conexión peatonal Egia – Centro.

Instalación artística de Esther Ferrer.

# Donostia, oinezkoen hiria.

Artzain Onaren ingurua, Easo kalea, Xabier Zubiri plaza eta Aita Donostia oinezkoen eremu bihurtzen ari dira. Donostiarrok kalitatezko espazio irekiak izango ditugu horrela, eta baita aire garbiagoa ere.

14.300 m² gehiago oinezkoentzat.

→ % 31 isuri gutxiago erdialdean.

Oinezkoen eta garraio publikoaren arteko bizikidetza-eremuak.



# Donostia la ciudad del peatón.

El entorno del Buen Pastor, la calle Easo, la plaza Xabier Zubiri y Aita Donostia, se convierten en nuevas áreas peatonales que nos ofrecerán a las y los donostiarras espacios de calidad, abiertos y con un aire más limpio.

14.300 m² ganados para el peatón.

→ 31% menos de emisiones en la zona Centro.

Áreas de convivencia peatón – transporte público.



## Donostia Urumearen ibar aldera hazten ari da.

Urumea ingurunea berroneratuz eta lehengoratuz, ingurumen, etxebizitza eta historia aldetik balio handia duen espazio bizi bat itzuli zaigu donostiarroi, hazteko aukera ere ematen diguna, etxebizitza, berdegune eta ekipamendu berriak eginez.

1.350 etxe berri eraiki dira.

Beste 4.000 etxebizitza eraikitzen ari dira.

28.000 m²-ko ibai-parkea.

## Añorgako bulebarizazioa: oinezkoentzako segurtasun eta espazio gehiago.

Inguruko bide-segurtasuna handitzea izan da beti Añorgako bulebarizazioaren helburu nagusia, oinezkoentzako eta txirrindularientzako ingurune atseginago bat sortzeko eremu horretan. Proiektuaren bigarren fase honetan, hobekuntzak egingo dira Rezolako eta Lore Tokiko biribilguneen arteko zatian.

Espaloiak eta lorategi-eremu berriak handitzea.

Aparkaleku gehiago.

Bidegorria Chillida Lekuraino.

## Donostia crece a la vega del Urumea.

La regeneración y recuperación del entorno del Urumea nos está devolviendo a las y los donostiarras un espacio vivo, de alto valor medioambiental, residencial e histórico que nos permite crecer con nuevas viviendas, áreas verdes y equipamientos.

1.350 nuevos hogares ya construidos.

4.000 nuevas viviendas en proceso.

Parque fluvial de 28.000 m².

## Bulevarización de Añorga: más seguridad y espacio para el peatón.

Aumentar la seguridad vial en la zona ha sido siempre el objetivo principal de la bulevarización de Añorga para generar un entorno peatonal y ciclista más amigable. Un proyecto que, en esta segunda fase, realizará las mejoras en el tramo entre las rotondas de Rezola y Lore Toki.

Ampliación de aceras y nuevas zonas ajardinadas.

Más plazas de aparcamiento.

Bidegorri hasta Chillida Leku.




© Iraitz Alduntzin.

# Dbus: hazten ari den garraio publikoa.

Dbusek bidaien errekorra hausten jarraitzen du, eta donostiarrok hobekien baloratzen dugun zerbitzu publikoetako bat da. BideBerdea asmo handiko proiektu bat da, konpainiaren elektrifikazioaren alde egiten duena. Horri esker, aire garbiagoa eta zarata gutxiago izango dugu Donostian.

- 34 milioi bidaiari urtean.
- % 85eko balorazio positiboa.
- 2030: % 100 autobus elektrikoak.



# Dbizi: bizikleta gehiago hirian.

2020. urtearen amaieran jarri zen abian Dbizi bizikleten udal-zerbitzua, eta ordutik etengabe hazi da. Hilean 12.300 abonatu ditu batez beste, eta urtean 1.300.000 bidaia baino gehiago. Dbizik garraio publiko aktibo eta jasangarria eskaintzen digu.

- 3.500 erabilera egunean.
- 69 estazio, hiri osoan zehar banatuta.
- 650 bizikleta.



# Dbus: el transporte público que crece.

Dbus sigue batiendo récord de viajes y siendo uno de los servicios públicos mejor valorados por las y los donostiarras. BideBerdea, un ambicioso proyecto que apuesta por la electrificación de la compañía, nos permitirá disfrutar de una Donostia con un aire más limpio y con menos ruido.

- 34 millones de viajeros/as anuales.
- 85% de valoración positiva.
- 2030: 100% autobuses eléctricos.

# Dbizi: más bicicletas en la ciudad.

Desde su puesta en marcha a finales de 2020, el servicio municipal de bicicletas, Dbizi, no ha parado de crecer. Con una media de 12.300 abonados cada mes y más de 1.300.000 viajes anuales, Dbizi nos ofrece un transporte público activo y sostenible.

- 3.500 usos diarios.
- 69 estaciones repartidas por toda la ciudad.
- 650 bicicletas.



**BIZI DUGUN DONOSTIA**

LA DONOSTIA QUE VIVIMOS

Bizitzea habitatzea baino askoz gehiago da. Denon artean kale, parke eta etxeez haragoko Donostia eraikitzea da. Espazioak eta begiradak partekatzea da. Bizi-proiektu berriak sortzea da. Aukera berrien bila dabiltzanekin batera bizitzea da. Eta hartzea da, hazteko.

**Donostiarren Donostia, bizitzeko, lan egiteko eta elkarrekin bizitzeko.**



Vivir es mucho más que habitar. Es construir entre todas y todos una Donostia más allá de calles, parques y casas. Es compartir espacios y miradas. Es crear nuevos proyectos de vida. Es convivir con quienes buscan nuevas oportunidades. Y es acoger para crecer.

**La Donostia de las y los donostiarras para vivir, trabajar y convivir.**

STIARRA




© Iraitz Alduntzin.

## Haur-parke estaliak, urte guztian gozatzeko.

Intxaurrondoko Sagastieder plazari, Antiguako Reno parkeari eta Loiolako Erriberetako Santiago parkeari estalkia jarriko zaie datozen hilabeteetan, txikienek urte guztian izan dezaten erlazionatzeko eta aire zabalean jolasteko aukera. 2027an, estalki gehiago jarriko dira, Amaraberrin, Grosen eta erdialdean.

Haurrentzako 154 jolasgune.

3,5 milioi € estalkitan eta berritze-lanetan, 2023tik.

27 haur-parke hobetu dira, auzo guztietan.

## Donostiako kultur etxeen bilakaera eta eraldaketa.

30 urte baino gehiago dira kultur etxeen eta udal-liburutegien sarea sortu zela, eta orain eraldaketa-prozesu betean dago. Asmo handiko hausnarketa-proiektu bat egin ondoren, ekipamendu berriak eta zerbitzu berritzaileak jarriko dira abian, gure kultura-sareak hazten jarrai dezan.

10 kultur etxe. 17 liburutegi.

→ Donostia Kulturak 126.200 bazkide.

Urtean 7.200 ekitaldi, egunean 20.






## Parques infantiles cubiertos para disfrutar todo el año.

La plaza Sagastieder de Intxaurrondo, el parque Reno del Antiguo y el de Santiago de Riberas de Loiola contarán en los próximos meses con cubiertas para que las y los más pequeños puedan relacionarse y jugar al aire libre todo el año. A ellos se sumarán en 2027 nuevas cubiertas en Amara Berri, Gros y Centro.

154 áreas de juego infantiles.

3,5 millones de € en cubiertas y renovaciones desde 2023.

27 parques infantiles mejorados en todos los barrios.

## Evolución y transformación de las casas de cultura donostiarras.

Tras más de 30 años, la red de casas de cultura y bibliotecas municipales se encuentra en pleno proceso de transformación. Un ambicioso proyecto de reflexión que permitirá poner en marcha nuevos equipamientos e innovadores servicios para que nuestra red cultural siga creciendo.

10 casas de cultura. 17 bibliotecas.

→ 126.200 socios de Donostia Kultura.

7.200 eventos programados al año, 20 cada día.

# Kalitatezko ekonomia eta enplegua indartzea.

Donostiako datuek erakusten dute gizartearen egoera ekonomikoa ona dela, langabezia % 6 baita. Kalitatezko enplegua sortzen jarraituko dugu, eta zailtasun gehien duten kolektiboei lana bilatzen lagunduko diegu: 45 urtetik gorakoei, emakumeei eta gazteei.

Miramongo Parke Teknologikoa handitzea.

→ Belartza II: industrialde berria.

Ekintzaile berriei laguntzea.



© Donostia Sustapena.



# Fortalecimiento de la economía y del empleo de calidad.

Los datos de Donostia reflejan que la situación económica de la ciudad es buena, con un 6% de paro. Seguiremos generando empleo de calidad y acompañando en la búsqueda laboral a los colectivos con más dificultades: mayores de 45 años, mujeres y jóvenes.

Ampliación del Parque Tecnológico de Miramon.

→ Belartza II: nuevo área industrial.

Apoyo a nuevos emprendedores.



© Donostia Sustapena.




## Mubil, elektromugikortasuneko berrikuntza-zentro erreferentea.

Mubil Hub berrikuntza-zentroa bakarra da Europan. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera abiarazi da, eta mugikortasun adimendun eta jasangarrirako irtenbide berritzaileak lortzen jarduten du. Abian jarri zenetik, I+G+b-aren arloko enplegua erakartzeko gune gisa finkatzen ari da. Besteak beste, bezero ditu McLaren, Fiat eta Peugeot.

→ 10.000 m² Eskusaitzetan.

8 enpresak osatzen dute.

2 zentro teknologiko eta puntako 3 laborategi.

## Eskusaitzeta: Gipuzkoako industrialde nagusia Donostian dago.

Mubil Hub, Gipuzkoako Farmazi Banatzailea, Cidetec Energy Storage, Otis Mobility, Dascher, BioTech Foods, Semi Zabala eta beste hainbat Eskusaitzetako parte dira dagoeneko. Gipuzkoako industrialderik handiena da, hirian industria- eta teknologia-enpresak erakartzeko gune gisa finkatzen ari dena.

1.000.000 m² baino gehiago ditu guztira.

Dagoeneko 18 enpresa daude martxan.

→ 38 milioi euroko inbertsioa.

## Mubil, un centro de innovación en electromovilidad referente.

Mubil Hub es un centro de innovación único en Europa. Desarrollado junto a la Diputación Foral de Gipuzkoa, trabaja en soluciones innovadoras para una movilidad inteligente y sostenible. Desde su puesta en marcha se está consolidando como un importante polo de empleo en I+D+i, con clientes como McLaren, Fiat o Peugeot.

→ 10.000 m² en Eskusaitzeta.

Integrado por 8 empresas.

2 centros tecnológicos y 3 laboratorios punteros.

## Eskusaitzeta, principal polígono industrial de Gipuzkoa en Donostia.

Mubil Hub, Distribuidora Farmacéutica Guipuzcoana, Cidetec Energy Storage, Otis Mobility, Dascher, BioTech Foods o Semi Zabala... forman ya parte de Eskusaitzeta, el mayor polígono industrial de Gipuzkoa que se consolida como un punto de atracción de empresas industriales y tecnológicas en la ciudad.

Más de 1.000.000 m² de extensión total.

18 empresas ya en marcha.

→ 38 millones € de inversión.


DO
NOS
TIA
RRA
1
2
3
4
5
6
7
9
12
13




# Etxebizitza berria sortzea.

9.271 etxebizitza aurreikusi dira.

### ONARTUAK ETA/EDO GAUZATZEN

→ 2.905 etxebizitza

1. Infernua. **540 etxebizitza.**
2. Illarra. **250 etxebizitza.**
3. Villa Ereski. **52 etxebizitza.**
4. Igara. **250 etxebizitza.**
5. Añorga. **248 etxebizitza.**
6. Lorategi Hiria. **264 etxebizitza.**
7. Txominenea II. **401 etxebizitza.**
8. Antzieta. **900 etxebizitza.**

### EPE ERTAIN/LUZERAKO AURREIKUSITAKOAK

→ 6.366 etxebizitza

9. Easoko trenbide-eremua. **530 etxebizitza.**
10. Jolastokieta III. **380 etxebizitza.**
11. Altza Berri (Auditz Akular). **3.112 etxebizitza.**
12. Loiolako Kuartelak. **1.750 etxebizitza.**
13. Sarrueta. **594 etxebizitza.**



# Generación de nueva vivienda.

9.271 viviendas previstas.

### APROBADAS Y/O EN EJECUCIÓN

→ 2.905 viviendas

1. El Infierno. **540 viviendas.**
2. Illarra. **250 viviendas.**
3. Villa Ereski. **52 viviendas.**
4. Igara. **250 viviendas.**
5. Añorga. **248 viviendas.**
6. Ciudad Jardín. **264 viviendas.**
7. Txominenea II. **401 viviendas.**
8. Antzieta. **900 viviendas.**

### PREVISTAS A MEDIO/LARGO PLAZO

→ 6.366 viviendas

9. Playa de vías Easo. **530 viviendas.**
10. Jolastokieta III. **380 viviendas.**
11. Altza Berri (Auditz Akular). **3.112 viviendas.**
12. Cuarteles de Loiola. **1.750 viviendas.**
13. Sarrueta. **594 viviendas.**

# 2026: turismoaren gaineko zerga abian, turismoa modu arduratsuan kudeatzeko.

Turismoaren gaineko zerga 2026an onetsiko da. Zerga hori hiriarena izango da, Udalak Donostian bildua. Eta hiriari eta haren premiei hobeto erantzuteko modua emango digu. Izan ere, Donostia erreferentzia da turismoan, baina turismo horrek orekatua eta errespetuzkoa izan behar du, hiriari eta bertako biztanleei mesede egingo diena.

→ Diru-bilketa zenbatetsia: 4 milioi euro baino gehiago.

Turismoak 15.000 lanpostu sortzen ditu, eta Donostiako BPGaren % 14 da.

Turismo-enpresen % 95 tokiko enpresa txiki eta ertainak dira.



# 2026: en marcha el impuesto turístico para una gestión responsable del turismo.

La aprobación del impuesto turístico será una realidad en 2026. Un impuesto que va a ser local, recaudado en Donostia por el Ayuntamiento. Y un impuesto que nos va a permitir atender mejor a la ciudad y sus necesidades. Porque Donostia es un referente turístico, pero debe ser un turismo equilibrado, respetuoso y que beneficie a la ciudad y sus habitantes.

→ Recaudación estimada: más de 4 millones €.

El turismo genera 15.000 empleos y el 14% del PIB donostiarra.

El 95% de las empresas turísticas son PYMES locales.





© Donostia Turismoa Paul Michael.





# Udal!nfo herritarren arretarako bulego berria.

Udal!nfo herritarren arretarako zerbitzuak berriki inauguratu du bere bulego nagusia, udaletxeko beheko solairuan kokatua. Instalazio horiei esker, donostiarrok hainbat izapide egin ahal izango ditugu toki bakar batean. Zerbitzu berritu eta zentralizatua, arreta hurbil, moderno eta irisgarriagoa eskaintzeko.

→ 60 postu arreta emateko eta entzuteko.

Aurrez aurreko, telefono bidezko eta telematika bidezko kanalak batean.

Zerbitzu erantsiak: Diru-bilketa eta hirigintza.



# Nueva oficina de Udal!nfo de atención ciudadana.

El servicio de atención ciudadana Udal!nfo ha inaugurado recientemente sus nuevas oficinas centrales en la planta baja del ayuntamiento. Estas instalaciones facilitan a las y los donostiarras la gestión de diferentes trámites en una misma ubicación. Un servicio renovado y centralizado, con una atención más cercana, moderna y accesible.

→ 60 puestos de atención y escucha.

Integración de los canales presencial, telefónico y telemático.

Servicios añadidos: Recaudación y Urbanismo.



Donostiarrok bakar egiten dugu Donostia. Egunero bizi dugu. Lagun egiten, zaintzen eta partekatzen dugun keinu bakoitzean. Gure nortasuna ospatzeko eta gure kulturari balioa emateko erabiltzen dugun modu bakoitzean. Eta elkarrekin hiri gizatiarrago, adeitsu eta irekiago batez gozatzeko dugun era bakoitzean.

**Donostia nortasuna, zaintza eta komunitatea da. Eta askoz gehiago.**



Las y los donostiarras hacemos única a Donostia. La vivimos cada día. En cada gesto con el que acompañamos, cuidamos y compartimos. En cada forma con la que celebramos nuestra identidad y ponemos en valor nuestra cultura. Y en cada una de las maneras con las que disfrutamos juntas y juntos de una ciudad más humana, amable y abierta.

**La Donostia que somos es identidad, cuidado y comunidad. Y mucho más.**

# Konpainia eta laguntza gehiago, gure adinekoen eguneroko bizitzarako.

Gure adinekoen arreta eta zaintza lehentasuna da, eta izango da. Horregatik, hainbat programa indartzen jarraituko dugu, hala nola, etxeetako arreta-zerbitzua, Donostia Lagunkoia, Zaintzak Gertu eta Goizaldiak, adinekoei egunero lagun egiteko, bizitza betea izan dezaten.

3.000 adinekok jasotzen dute etxeko arreta.

20.000 parte-hartzaile +55 programan.

→ 20 erretiratuen elkarte baino gehiago.





# Más compañía y apoyo para nuestros mayores en su día a día.

La atención y cuidado de nuestros mayores es y será una prioridad. Por ello, seguiremos fortalenciendo programas como el servicio de atención en hogares, Donostia Lagunkoia, Zaintzak Gertu o Goizaldiak que les acompañan cada día para facilitarles una vida plena.

3.000 mayores reciben atención domiciliaria.

20.000 participantes en el programa +55.

→ Más de 20  asociaciones de personas mayores jubiladas.





## Bretxa bizitzaz bete da zerbitzu berriekin.

Parte Zaharraren ikur da, eta Donostiarena ere bai. 150 urtetik gorako historian, Bretxak ondo jakin du garai bakoitzera moldatzen, bere esentzia galdu gabe. Bertako merkatu tradizionala berritu dugu, eta komunitate-protagonismo berria eman diogu, auzoarentzat jarritako ekipamendu eta zerbitzuei esker.

→ Plaza berria, irekiagoa.

Baserritarrak eta merkatu tradizionala kaleko solairuan.

Osasun-zentroa, kirol-instalazioak, gizarte-zerbitzugunea.

## Polizia-eredu hurbilagoa, modernoagoa eta auzoekin konektatuagoa.

Donostia hiri segurua da. Eta hala izaten jarraitu behar du, errealitate berriei kasu eginda. Horretarako, ezinbestekoa da Udaltzaingoa Ertzaintzarekin batera lankidetza estuan aritzea. Gure kaleez eta plazez lasai gozatzen jarraitu behar dugulako.

364 udaltzain.

→ Egia: polizia-etxe berria, Udaltzaingoak eta Ertzaintzak partekatua.

Teknologia berriz hornitua.

## La Bretxa se llena de vida con nuevos servicios.

Es el símbolo de la Parte Vieja, y de Donostia. Con más de 150 años de historia, la Bretxa ha sabido adaptarse sin perder su esencia. Hoy renovamos su mercado tradicional, y le damos un nuevo protagonismo comunitario gracias a los equipamientos y servicios incorporados para el barrio.

→ Nueva plaza más abierta.

Baserritarras y mercado tradicional en la planta de calle.

Ambulatorio, instalaciones deportivas, centro de servicios sociales.

## Un modelo de policía más próximo, moderno y conectado con los barrios.

Donostia es una ciudad segura. Y tiene que seguir siéndolo atendiendo a las nuevas realidades. Para ello es imprescindible contar con una Guardia Municipal que trabaje y colabore estrechamente con la Ertzaintza. Porque debemos seguir disfrutando con tranquillidad de nuestras calles y plazas.

364 agentes municipales.

→ Egia: nueva comisaría compartida Guardia Municipal y Ertzaintza.

Incorporación de nueva tecnología.

# Protonterapiako eraikin berria, arreta onkologikoa hobetzeko.

Osakidetza Donostialdeko ESIa handitzen ari da protonterapiako eraikin berria gehituta. Erreferentziako zentroa izango da, minbizia duten pazienteei tratamendu zuzenagoa eskainiko diena. Ospitalea handitzeko lanen baitan, kanpo-kontsultetarako eraikin bat ere egingo da, osasun-zerbitzuak hobetzeko.

→ Protonterapia: minbizia tratatzeko Euskadiko erreferentzia-zentroa.

Kanpo-kontsultak: 48.000 m² gehiago.

Inbertsioa, guztira: 138 milioi €.





# Nuevo edificio de Protonterapia para mejorar la atención oncológica.

Osakidetza está ampliando la OSI de Donostialdea con la incorporación del nuevo edificio de Protonterapia. Un centro de referencia que permitirá ofrecer a pacientes con cáncer un tratamiento más preciso y menos invasivo. La ampliación del hospital se completará con un edificio de consultas externas que mejorará los servicios sanitarios.

→ Protonterapia: centro de referencia de Euskadi para el tratamiento del cáncer.

Consultas externas: 48.000 m² añadidos.

Inversión total: 138 millones €.



# Txominenea: osasun-zentro gehiago Donostian.

Donostiak beste osasun-zentro bat izango du, Txomiñeneko eta inguruko bizilagunak artatzeko. 2027an, osasun-zentroa errealitate bat izango da, eta zerbitzu hauek eskainiko ditu: familia-medikuntza, pediatria, emakumeei arreta emateko kontsultak, fisioterapia eta gimnasioa.

→ 3.300 m², lau solairutan.

11 kontsulta familia-medikuntzarako.

BioGipuzkoarako ikerketa-arloa.

**2032an, osasun-zentro bat gehiago izango da, Intxaurrondon.**

En 2032 se sumará un nuevo ambulatorio en Intxaurrondo.

# Txominenea: más ambulatorios en Donostia.

Donostia sumará un nuevo centro de salud para atender a las y los vecinos de Txominenea y su entorno. En 2027 el ambulatorio será una realidad que contará con medicina de familia, pediatría, consultas de atención a la mujer, fisioterapia y gimnasio.

→ 3.300 m² en cuatro plantas.

11 consultas para medicina de familia.

Área de investigación para BioGipuzkoa.

# Chillida Bidea: artistaren ondareaz gozatzeko eta hura berriz deskubritzeko ibilbidea.

Eduardo Chillida artea, identitatea eta harrotasuna da. Eta donostiarrok beti ohoratu dugu haren ondarea. Laster, hiriari egin dion ekarpen artistikoaz gozatu ahal izango dugu, Chillida Bidearen bidez. Oinez eta bizikletaz egiteko moduko ibilibidea da, Haizearen Orrazia eta Chillida Leku lotzen dituena.

→ 7 km-ko ibilbidea.

Oinezkoen eta bizikleten bidea.

Artea, hirigintza eta natura.



# Chillida Bidea: una ruta para disfrutar y redescubrir el legado del artista.

Eduardo Chillida es arte, identidad y orgullo. Y las y los donostiarras siempre hemos honrado su legado. Muy pronto podremos también disfrutar y redescubrir su aportación artística en la ciudad a través de Chillida Bidea, un recorrido a pie o en bici que unirá el Peine del Viento con Chillida Leku.

→ 7 km de ruta.

Recorrido peatonal y ciclista.

Arte, urbanismo y naturaleza.





# Donostia Euskararen hiria da.

Donostia euskararen eta euskal kulturaren eta sorkuntzaren hiria da. Arlo guztietan gure egunerokotasunaren parte da: gure kale, plaza, saltoki, Tabakalerako arte sorkuntza, zein Zinemaldiko zabalkundean. Horregatik gara erreferentzia.

→ Ikasleen % 72 D ereduan matrikulatuta daude.

Donostiarren % 53 euskaldunak dira.

**Donostiako hamaika auzotan euskara batzordeak sortu dira bertan dauden premiei eta beharrei hobeto erantzuteko.**

En once barrios donostiarras se han creado comisiones de euskera para responder mejor a las necesidades de cada zona.

# Donostia Euskararen hiria da.

Donostia es la ciudad del Euskara y de la cultura y creación vasca. Forma parte de nuestro día a día en todos los ámbitos. Desde nuestras calles, plazas y comercios, hasta la creación artística en Tabakalera o la difusión en Zinelmadia. Por eso somos referentes.

→ 72% de alumnos y alumnas están matriculados en modelo D.

53% de donostiarras son euskaldunes.



**AMESTEN DUGUN DONOSTIA**

**LA DONOSTIA QUE SOÑAMOS**

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Imajinatzen dugun hiria etorkizunari begira dago. Ezagutzaren, berrikuntzaren eta tokiko talentuaren alde egingo duen etorkizun bati begira. Donostiar proiektuak izango dituen etorkizun bati begira, non ideiak eta espazio berriak errealitate bihurtuko diren, hazteko, ikasteko eta sortzeko.

**Amesten dugun Donostia gurea da, bizirik dago eta martxan da jadanik.**



La ciudad que imaginamos mira al futuro. A un futuro que apuesta por el conocimiento, la innovación y el talento local. A un futuro con proyectos donostiarras que hagan realidad ideas y nuevos espacios para crecer, aprender y crear.

**La Donostia que soñamos es nuestra, está viva, y ya está en marcha.**

# Anoeta eta Illunbe: Donostiak kirolaren eta aisialdiaren alde egindako apustu handia.

Anoetako kirol-hiria eta Illunbeko erabilera anitzeko pabiloia osorik berritzeko proiektua itxura hartzen ari da. Biak ere hiri-proiektu garrantzitsuak dira, kirolaren eta kulturaren arloan lehen mailako ekitaldiak egiteko aukera emango dutenak, eta, gainera, donostiarren, kirol-kluben eta eliteko taldeen eskura instalazio modernoak eta irisgarriak jarriko dituztenak.

→ Donostiarren % 70ek kirola egiten du.

Hiriko 14 talde ari dira eliteko kirolean, 9 emakumeenak.

Udalaren kirol-instalazioen 3.740.000 erabilera urtean.



# Anoeta & Illunbe: la gran apuesta de Donostia por el deporte y el ocio.

La renovación integral de la Ciudad Deportiva de Anoeta y el Multiusos de Illunbe van tomando forma. Son importantes proyectos de ciudad que permitirán la celebración de eventos deportivos y culturales de primer nivel, y además facilitarán a donostiarras, clubes deportivos y equipos en la élite instalaciones modernas y accesibles.

→ 70% de donostiarras practica deporte.

14 equipos locales en la élite deportiva, 9 femeninos.

3.740.000 usos/año de instalaciones deportivas municipales.



# Bioteknologiako berrikuntza-zentro berria Illunben.

Miramongo parke teknologikoa Illunbe aldera hazten ari da, Sokai Hub Gipuzkoari esker. Columbus Venture Partners-en eskutik, bioteknologia-zentro berriak Illunbeko instalazio zaharrak biziberrituko ditu, biozientzietara bideratutako 64.000 m²-ko eraikin berritzaile bati esker.

→ Ikerketa-laborategiak.

Coworking eta networking eremuak.

Ikertzaileentzako talent housea.

# Nuevo centro de innovación biotecnológica en Illunbe.

El Parque Tecnológico de Miramon crece hacia Illunbe gracias a Sokai Hub Gipuzkoa. De la mano de Columbus Venture Partners, el nuevo centro dedicado a la biotecnología regenera las antiguas instalaciones del centro Illunbe con un innovador edificio de 64.000 m² destinado a las biociencias.

→ Laboratorios de investigación.

Zonas de coworking y networking.

Talent house para investigadores.



# Miramongo parke teknologikoa hazten ari da, aukera eta enplegu berriak sortzeko.

Miramongo parke teknologikoak 30 urte bete zituen 2024an, eta Illunbe eta Galarreta aldera hazten ari da. Horri esker, I+G+b-an erreferentziazkoak diren enpresa gehiago kokatu ahal izango dira bertan, eta donostiarrentzat enplegu-aukera errealak sortuko dira horrela.

→ +200 enpresa.

6.500 langile.

Handitutako eremua: +38.000 m².

# El Parque Tecnológico de Miramon crece para generar nuevas oportunidades y empleo.

El Parque Tecnológico de Miramon, que en 2024 celebró su 30 aniversario, se encuentra en pleno proceso de crecimiento hacia Illunbe y Galarreta. Una importante ampliación que le permitirá seguir acogiendo empresas referentes en I+D+i y generando oportunidades reales de empleo para las y los donostiarras.

→ +200 empresas.

6.500 trabajadores.

Ampliación: +38.000 m².


© IBM Corporation.

# Ordenagailu kuantikoarekin, Donostia erreferentzia da nazioartean.

Ibaetako campusean lau ikerketa-zentro eta bi unibertsitate daude, Europan bakarra den gune kuantiko batean. Basque Quantum proiektuari esker, Donostian jarri dute IBM Quantum System Two superordenagailua, energiaren, industriaren eta adimen artifizialaren sektoreetan ikerketa bultzatuko duen abangoardiako sistema.

→ 4 ikerketa-zentro: Ikerbasque, DIPC, CIC nanoGUNE, CFM/MPC.

Erreferentziazko 2 unibertsitate: EHU, Tecnun.

Basque Quantum inbertsioa: 70 milioi €.




# El ordenador cuántico posiciona Donostia como referente internacional.

El campus de Ibaeta reúne a 4 centros de investigación y 2 universidades en un polo cuántico único en Europa. Gracias al proyecto Basque Quantum, Donostia acoge al superordenador IBM Quantum System Two, un sistema de vanguardia que impulsará la investigación en sectores como energía, industria e inteligencia artificial.

→ 4 centros de investigación: Ikerbasque, DIPC, CIC nanoGUNE, CFM/MPC.

2 universidades referentes: EHU, Tecnun.

Inversión Basque Quantum: 70 millones €.

# GOe, ezagutza eta gastronomia bateratzen dituen espazio aktibo eta irekia.

GOek dagoeneko ireki ditu ateak, eta gastronomiari buruzko ezagutza partekatzeko eta gozatzeko espazioak eskainiko dizkie donostiarrei. Basque Culinary Center-ek hirian duen bigarren egoitza da. Erakunde aitzindaria da nazioartean, eta Donostiako historia gastronomikoaren parte da jadanik.

→ 3.600 m² lorategi-eremu.

1.200 m² jendeari irekiak.

300 ikasle urtean.



# GOe, un espacio activo y abierto que aúna conocimiento y gastronomía.

GOe ya ha abierto sus puertas para ofrecer a las y los donostiarras espacios para compartir conocimiento y disfrutar de la gastronomía. Se trata de la segunda sede del Basque Culinary Center en la ciudad, una institución público-privada pionera a nivel internacional que ya forma parte de la historia gastronómica de Donostia.

→ 3.600 m² de zonas ajardinadas.

1.200 m² abiertos al público.

300 estudiantes al año.

@donostia_udala @DonostiaSanSebastian @ayto_SS @donostiakoudala

DONOSTIA.EUS UDALINFO _ 010

**PEFC ziurtapenak dituen paperean inprimatua. Irakur nazazu, parteka nazazu eta, gero, birzikla nazazu berriro. Ale bakoitzeko kostua: 0,88 €.**

Impresa en papel con certificación PEFC. Léeme, compárteme y, después, vuelve a reciclarme. Coste por ejemplar: 0,88 €.

PEFC